Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko martxoan

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.027 eskaintza erregistratu dira 2024ko martxoan, otsailean baino 189 gutxiago eta 2023ko martxoan baino 216 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2024ko martxoan 203 eskaintza erregistratu dira Araban, 388 Gipuzkoan eta 426 Bizkaian. Eskaintzen % 19,8 Arabako UAG-etan erregistratu dira, % 37,8 Gipuzkoan eta % 42,5 Bizkaian.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Araban, hilabete honetan, eskaintzek % 12,9 egin dute behera 320 eskaintza gutxiago); Bizkaian % 22 jaitsi dira (36 eskaintza gutxiago); eta azkenik, Gipuzkoan, eskaintzak % 8,5 egin dute behera (36 eskaintza gutxiago).

Iazko hilabete beraren aldean, 3 Lurraldeetan murriztu dira eskaintzak. Araban 39 eskaintza gutxiago izan dira (% 16,1eko beherakada); Bizkaian 96tan jaitsi dira eskaintzak (% 18,1 gutxiago); eta, azkenik, Gipuzkoa da eskaintzak gehien jaitsi diren lurraldea, 126 eskaintza gutxiagorekin (-% 24,5).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn erregistratutako eskaintza gehien dituen profila zientzietako teknikariena da, 209 eskaintza eta eskaintza guztien % 20,4rekin. Ondoren, zerbitzuetako profila dago, 192 eskaintza eta % 18,7 ko pisuarekin. Laguntzako teknikarien, industriako eta ez kualifikatuen okupazio-profilek ere garrantzi handia dute erregistro-eskaintzei dagokienez, eskaintza-bolumenaren ehunekoak % 18,4, % 11,8 eta % 11,6 izan baitira, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 7 eta 11 eskaintzekin, hurrenez hurren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, eskaintzak jaitsi egin dira profil guztietan; salbuespena operadoreak (+4 eskaintza, +% 5) eta lehen sektorea dira (otsaileko zifrak errepikatu dituzte, 7 eskaintza). Beherakadarik handienak, balio absolutuetan, laguntza-teknikarien eskaintzetan gertatu dira, 62tan jaitsi baitira (- % 24,7); balio erlatiboetan, berriz, industriako eskaintzetan gertatu da beherakada handiena, % 25,8ko murrizketarekin (-42 eskaintza).

Urte arteko saldoari dagokionez, eskaintzak jaitsi egin dira okupazio guztietan, operadoreen profilean izan ezik, 7 eskaintzatan egin baitute gora (% 9,1eko igoera). Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, industriako profilean gertatu da, 78 eskaintza gutxiagorekin eta % 41,3ko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, murrizketarik handiena lehen sektorekoen eskaintzetan gertatu da, % 41,7 gutxiagorekin (-5 eskaintza).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako eskaintzen % 42,3 mugagabeak izan dira, eskaintzen % 57 aldi baterakoak, eta gainerako % 0,7 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa handia da serie historikoarekin alderatuta, iazko martxotik hona ia 2 puntu hazi da; otsailetik hona, aldiz, 2 puntutan murriztu da. Datu horiek indartu egiten dute lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera. Mugagabeko eskaintzak 434 izan dira, aurreko hilean baino 104 gutxiago (% 19,3ko beherakada). Aldi baterako eskaintzek ere behera egin dute (85 eskaintza gutxiago), 585 izan dira guztira; balio erlatiboetan, beherakada % 12,7koa izan da. Azkenik, merkataritzako 8 eskaintza izan da 2024ko martxoan, aurreko hilean baino 1 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeko 87 eskaintza gutxiago egon dira (% 16,7ko beherakada); aldi baterako eskaintzek ere behera egin dute; % 22,7 eta 172 eskaintza gutxiago. Azkenik, merkataritzako 2 eskaintza gutxiago erregistratu da urte arteko konparaketan.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2024ko martxoan erregistratutako eskaintzen % 78k 0 eta 6 hil arteko esperientzia behar dute, 807 eskaintza guztira. Eskaintzen % 10,8k (111 guztira) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia-aldi luzeagoa eskatzen duten eskaintzek, hala nola 3 eta 5 urte bitartekoek, % 2ko pisuarekin (21 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago eskatzen dituztenek; 5 eskaintza eta % 0,3ko pisua.

Hileko bilakaeran, eskaintzak jaitsi egin dira esperientzia-tarte guztietan. Balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete artean behar duten eskaintzen beherakada nabarmentzen da, % 11ko murrizketarekin eta 100 eskaintza gutxiagorekin; balio erlatiboetan, 5 urtetik gorako eskaintzen beherakada nabarmentzen da, % 75 jaitsi baitira (-9 eskaintza).

Urteko bilakaerari dagokionez ere, eskaintzek behera egin dute tarte guztietan. Nabarmentzekoa da 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-tartearen beherakada, 145 eskaintzatan jaitsi baita (-% 15,2); balio erlatiboetan, nabarmentzekoa da 5 urtetik gorako eskaintzen beherakada, % 76,9 jaitsi baitira (-10 eskaintza).

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko martxoan

Martxoan, erregistratutako lan-eskaintzek 8 hilabeteko batez besteko esperientzia eskatu dute, otsailean bezala.

• LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten zer lan-jardunaldi egin behar den eskaintzak erregistratzeko orduan; eskaintzen % 15,5ek bakarrik zehazten dute lanaldia, aurreko hilean baino 0,8 puntu gutxiago (1.027 eskaintzatik 159k soilik). 159 eskaintza horietatik 136 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerakoak 23 lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 6 gutxiago izan dira otsailarekin alderatuta, hau da, % 4,2ko jaitsiera. Lanaldi partzialeko eskaintzek behera egin dute 14 eskaintzatan, eta murrizketa erlatiboa % 37,8koa izan da.

Aurreko urteko hil beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzak hazi egin dira 10 eskaintzatan (% 7,9 gehiago); lanaldi partzialekoak, berriz, 12 eskaintzatan murriztu dira (-% 34,3).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 10 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean eta aurreko urtean baino 6 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 80,6k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.027 eskaintzetatik 199k soilik zehaztu dute.



199 eskaintza horietatik 77k LHko ikasketak behar zituzten, eta ikasketa-maila minimo hori da gehien eskatu dena; ondoren, unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak datoz, 66 eskaintza erregistratu baitziren martxoan. Horien atzetik daude derrigorrezko ikasketen eta batxilerreko profilak, 35 eta 21 eskaintza erregistratu baitituzte, hurrenez hurren.

Hil arteko erlazioan, eskaintzak murriztu egin dira profil guztietan, batxilergoan izan ezik, horietan 6 gehiago izan baitira (% 40 gehiago). Jaitsierarik handiena, balio absolutuetan, unibertsitate-ikasketen eskaintzetan izan da, 13 eskaintza gutxiagorekin eta % 16,5eko jaitsierarekin; balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzetan gertatu da, % 23,9ko jaitsierarekin (11 eskaintza gutxiago).

2023ko martxoarekin konparatuz, batxilergoko ikasketak behar dituzten eskaintzak bakarrik igo dira (+13, +%162,4). Aitzitik, balio absolutuetan gehien murrizten diren eskaintzak LHko ikasketak eskatzen dituztenak dira, 19 eskaintza gutxiagorekin (% 19,8ko jaitsiera erlatiboa); balio erlatiboetan, jaitsierarik handiena derrigorrezko ikasketen eskaintzetan gertatu da, % 27,1 gutxiagorekin (-13 eskaintza).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratu diren eskaintzen bolumena kontutan hartuta, manufaktura industriako eskaintzak dira pisu handiena dutenak; % 13,2a hain zuzen ere (135 eskaintza). Atzetik, oso gertutik datoz merkataritzako eskaintzak, 134 eskaintza eta hil honetako eskaintza guztien % 13,1a baitira.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, jarduera gehienetan jaitsi dira eskaintzak. Gehien jaitsi diren eskaintzak profesional zientifikoenak izan dira (58 eskaintza gutxiago eta % 43,6ko jaitsiera erlatiboa), eta ondoren manufaktura-industriako jardueren eskaintzak daude (-50 eskaintza, -% 27). Bestalde, guztizko balioetan gehien igo diren eskaintzak administrazio publikokoak dira (+35).

Urte arteko saldoari dagokionez, eskaintzak jarduera gehienetan murriztu dira. Zenbaki absolutuetan industrian izandako jaitsiera nabarmentzen da, 70 eskaintza gutxiagorekin (% 34,2ko murrizketa), eta ondoren ostalaritzan eta merkataritzan izandako jaitsiera (-42 eskaintza bietan). Aitzitik, igoerarik handiena, zenbaki absolutuetan, administrazio publikoan izan da, 21 eskaintza gehiago eta % 31,8ko igoerarekin.